

ISILDUTAKO AHOTSAK IZATETIK, ERREFERENTEAK IZATERA!!

Andoain, 2025eko azaroaren 21a

Arratsalde on!!

Gu Inge eta Laila gara, eta gaur Bizenta Mogel eta Jasone Osororen bizitzako pasarterik garrantzitsuenak aurkeztuko dizkizuegu eta bere ibilbide profesionali buruz ere hitz egingo dugu.

Ezagutu nahi duzue zergatik diren emakume erreferente bi idazle hauek euskal kulturaren unibertsoan? Entzun azalpena eta jakingo duzue.

Gure helburua da bi egile hauen inguruko informaziorik esanguratsuen ematea: nortzuk diren, zer egin duten eta euskal literaturan erreferente zergatik diren azaltzea. Bi idazle hauek garai eta estilo oso desberdinetakoak dira, baina biek ekarpen handia egin diote literaturari.

Ezagutu eta jakin nahi duzue?

Jasone Osoro: Jasone Osoro 1971n jaio zen, Elgoibarren. Informazio zientzietan lizenziatua, kazetari lanetan aritu izan da hainbat urtez. Telebistan ere aritu izan da, aurkezle zein gidoilari eta urteak daramatza egunkari eta aldizkarietan zutabeak idazten. Bere lehen literatur lana 1998an kaleratu zuen, *Tentazioak* narrazio liburua, eta *Arrakasta* saiakera liburua da bere azken lana.

Jasone Osoro euskal idazle ezaguna da. Bi sari irabazi ditu: *Tentazioak* liburuarekin Zazpi kale saria eta *Korapiloak* liburuarekin Zilarrezko Euskal saria.

Bere ibilbide profesionalean zailtasunak izan ditu emakume izateagatik gutxietsi izan baitute. Esate baterako ez zioten idazle etiketa jarri kolaborazio bat egitean eta berak ez zion bere buruari idazle etiketa jarri nahi izan, haien kontra zegoen eta borrokatu du etiketen kontra. Hori gertatu arren, gaur egun idazle izatetik bizi da.

Egindako elkarrizketa batean, Jasone Osorok aitotzen du arrakasta izatea “Barruko ongizatearekin lotuta dagoela, lorpen pertsonalagoekin, maitasunarekin, zure buruarekin eta bizitzarekin gustura egotearekin. Eta hori norbere begiradak ematen du, ez kanpokoak.”

Orain, Bizenta Mogeli buruz hitz egingo dugu:

Bizenta Mogel idazlea izan zen, eta bere garairako emakume aurrerakoa. 1782an jaio zen Azkoitian, emakumeek ikasteko eta idazteko aukera gutxi zuten garai batean. Hala ere, Bizenta Mogelek literaturarekiko interesa agertu zuen txikitatik. Ausarta izan zen, gizarteak emakumei ezarritako mugak gainditu zituelako: ikasi egin zuen, idazle bihurtu zen eta euskaraz argitaratu zuen, garai hartan emakume batentzat oso

ezohikoa zen zerbait Horregatik, bere eredia emakumeen hezkuntzaren eta kulturaren aldeko urrats garrantzitsua izan zen.

Izan ere, familian idazlea zen osaba bat zuen, eta emakumeek letra eta literaturaren munduan sarbide gutxi zuten garaian, familiako giroari esker, literaturara hurbildu ahal izan zen. Euskaraz ipuinak idazten zituen osaba hori Juan Antonio Mogel izan zen, eta hari esker, irakurtzen eta idazten ikasi zuen. Familiaren laguntzari esker, literaturara hurbiltzeko aukera izan zuen, nahiz eta emakume izateak zailtasun handiak ekarri.

Bizentak *Ipuin onac* liburua argitaratzea lortu zuen, eta liburu horren bitartez euskaraz idatzi zuen lehen emakumea izan zen. Lorpen hori ez zen erraza izan, baina bere ingurukoen laguntzari esker aurrera egin zuen.

Zailtasunei aurre egiteko, ez zuen amore eman eta idazten jarraitu zuen. Emakume izate hutsagatik askotan zalantzan jarri zuten, ikasteko aukerak oso mugatuak zituen eta idaztea ez zen berarentzat bide erraza izan. Askotan bakarrik sentitu zen, baina literaturarekiko zuen maitasunak aurrera jarraitzera bultzatu zuen. Bere bizitza asko aldatu zen idazle gisa ezagun egin zenean, nahiz eta aitortza handia beranduago iritsi.

Bizenta Mogel erreferentea da, euskaraz idatzi zuen lehen emakumea izan zelako, eta emakumeek ere literaturan lekua izan zezaketela erakutsi zuelako.

Amaitzeko esatea dugu, Bizenta Mogel eta Jasone Osoro bi garai desberdinetako idazleak izanda ere, biek erakusten dute emakumeek euskal literaturan lekua izan dutela eta badutela. Bizenta Mogel izan zen bidea ireki zuena, emakumeek idazteko aukera gutxi zuten garaian. Jasone Osorok, berriz, gaur egun, bide horri segi dioe eta horrek errazten du ondorengoen bidea.

Zailtasunak zailtasun biak erreferente bihurtu dira, eta euskal literaturari ekarpen handia egin diote.

<https://jasoneosoro.com/biografia/>

<https://orain.eus/eu/kultura/literatura/2024/04/24/jasone-osorori-elkarrizketa-ar-rakasta-polisemikoa-da-malgua-eta-lorgarria/>

<https://www.zumalakarregimuseoa.eus/es/actividades/investigacion-y-documentacion/pequenos-personajes-del-siglo-xix/vicenta-antonia-mogel>

https://es.wikipedia.org/wiki/Vicenta_Moguel